

IRALE eta GARATUra eskabide epeak irekita

IRALE

Hauek dira iraileko deialdian IRALEn eskainiko diren ikastaroak (denak liberaturik):

HE1, HLEA HE2 edo EGA lortzeko:

- 3000 HE1 lortzeko (5 hilabete, urtarriletik ekainera)
- 4000 HLEA lortzeko (5 hilabete, urtarriletik ekainera)
- 5000 HE2 lortzeko (5 hilabete, urtarriletik ekainera)

Sarrera azterketak: urriaren 27an

HE2, EGA edo baliokideren bat dutenentzat:

- R400: euskal ikasmaterialak sortzeko (UD digitalak) (7 aste, urtarriletik otsailera)
- R500 (berria): ahozko konpetentzia lantzeko (hilabete, maiatzean)
- R600: euskal kultura lantzeko (7 aste, martxotik apirilera)
- R700 (berria): glotodidaktika lantzeko (hilabete, maiatzean)

Eskaera epea: irailaren 24ra arte (24a barne)

Non: Lurralde ordezkarietzan

Norentzat: Irakasle guztiontzat (aldi baterakoentzat ezinbestekoa da urte osorako lanpostu hutsa izatea) eta Heziketa Bereziko lan-legepekoentzat.

Informazio gehiago: [hemen](#)

Eskaera orria: [hemen](#)

Aurreko ikasturtean behin eta berriro salatu genuen moduan Jaurlaritzaren hezkuntza politikak eta CC.OO. eta UGTek gutxiengoan sinaturiko hitzarmenak murrizketa latzak ekarri ditu IRALEn eta hemen ditugu ondorioak (R300a txanda bakarrekoa eta kupo murriztukoa izan da eta R600a txanda bakarrekoa, 7 astekoa besterik ez eta 160ko kupo murrizketarekin).

Murrizketa ideologiko eta ekonomikorik ez! Kalitatezko euskal hezkuntza!

GARATU

Garatuko prestakuntza ikastaroak egiteko 2. epea ere irekia dago.

2. epeko **ikastaro zerrenda**: [hemen](#)

Eskaera epea: irailaren 24ra arte (24a barne)

Non: Lurralde ordezkartzetan

Behin-behineko zerrendak: urriaren 8an (erreklamazio epe urriaren 19ra arte)

Behin betiko zerrendak: urriaren 27an

Informazio gehiago: [hemen](#)

Non: Lurralde ordezkartzetan

Banan-banako dirulaguntzak Hezkuntza Sailaz kanpoko prestakuntza saiotarako (2010/09/20ko EHAA/BOPVean argitaratuko da):

Eskaera epea: irailaren 21etik urriaren 20ra (biak barne).

Norentzat: Irakasle eta lan-legepeko langileentzat (eskaera hau egiten dutenek ezingo dute prestakuntza fondoko eskaera egin)

Informazio gehiago: [hemen](#)